

► ZARAUTZ

Suhiltzaileek lan handia

■ Udalak eraturtako Presoen Batzordea bertan behera utzi zuten ekainean. ■ Udan bost aldiz irten zen ura bere bidetik. ■ Itsas Pasealekua inaguratu zen Tocinoren presentziarekin.

Bero joan da urtea. Eta hainbat aldiz bere bidetik irten-dako errekek ez du lortu hori freskatzetik. Berotasun eta haserre hori Itsas Pasealekua inaguratzera etorri zen Isabel Tocino ministroak ere nabaritu zuen. Baita bizkartzainek ere. Mila milioi pezetatik gorako aurrekontua duen itsas pasealekuak zeresan ugari ekarri du aurten herritarren artean.

Gari BERASALUZE

Espainiar zein frantziar espetxeetan jarraitzen dute Iban Illarramendi, Marijo Lazkano, Xabier Makazaga eta Jose Mari Perezek. Azken honck eta Marijok azarotuan hamar urte bete dituzte espetxean. Marijok eta Ibonck, gainera, kalean behar zuten aspaldi. Bahituak dituzte, beraz, baina honen aurrean Udalak ez du ezer egin. Presoen Batzordea sortu zen urteko lehen hilabeteetan, baina Batzordearen gaitasun eta borondaterik ezak, ordea, berehala utzi zuen agerian Udalaren jokoa eta, ekainean, bertan behera gelditu zen.

Uda bero zetorren eta, giro hartan, Udalak ez zien baimen eta lokalik eman Artzain Oneko gose grebalarien txandak Zarautzen egin zuen barauari. Hau ikusita, gose grebalariek Sanz Enea liburategian sartu ziren. Handik lasterrera, berriz, Askatasunaren Ibilaldia, Abialdian alegia, Udalaren oztipoen gainetik igaro zen herritik.

Garai hartan, egun batzuk lehenago, Blanco Ermuko PPko zinegotziaren heriotza zela eta, udal osoko bilkura berezia deitu zuen Udalak. Ohi bezala atek irekita egin zen bilkura hura baina, kanpoan megafonia jarri zen «goerak hala eskatzen zuelako». Zenbait hilabete beranduago, berriz, Bilboko gertaeren ostean, Udalak legeak diotenaren aurka atek itxi zituen udal osoko

bilkuran eta, heriotzen aurka protesta egin zutenek Ertzaintza izan zuten lagun udaletxe anarian. Amorrak kale eta banketxeetan su hartu zuen egun horietakoa izan zen hura, eta suhiltzaileek, berriro ere, lan egin behar izan zuten.

Lehendik ere, ordea, nahikoa lan egina zuten, suak ez baina urak erre baititu aurten Zarautzko hainbat dendari eta bizilagun. Izan ere, bost aldiz irten zen udan ura bere bidetik eta, kalterik handiena Bizkaia, Herriko-barra eta Zigordia kaleak jasan zuten.

Irailean azken 24 urteotako uholderik handiena ezagutu zuen Zarautzek eta, betiko kaleak ez ezik herriaren zati bat kaltetua izan zen. Urrian, uholdeek kalte-uriko dendari eta bizilagunek elkarre berri bat osatu zuten.

Urria iristear zela iritsi zen Isabel Tocino Ingurugiro ministroa ere Zarautza, malekoi berriaren inagurazioan parte hartzera. Eta bizkartzain ugari ere. Itsas pasealekura hurbildu eta, itsasoarekin ez ezik, Alternatiba Demokratikoarekin egin zuen topo ministroak, bertaratutako 30 lagun ingururen oihuak entzutearekin batera.

Herritar askoren iritzirako, bertan gastatutako milioiak herriko gazteen beharretan edo etxebizitza merkeagoak eskaintzen xahututa ez ziokeen kalte handirik egingo herriari.



Malekoi berria inaguratzera Tocino ministroa etorri zitzaigun.

Javier GALLEGU

Zenbait talde ilusioz hasi da lanean

G.B.

Auzoetako ekipamenduak ere osatu joan direla aipatu behar da. Hala nola, Vista Alegre, Itxas Mendi, Urteitako frontoia eta abar. Aipatu beharrekoak dira herriaren barrena martxan dauden hainbat lan eta egitasmo berri: Aritzatalde, Karmelitik-Inhurutza eta Salbide urbanizazioak, Iraingo errekarren desbi-

deraketa, kolektore berriaren lanak, autopista irteerako glo-rieta, geltoki zaharra berritzea...

Guztia, ordea, ez da berriro eta hobetzea. Herriko ikastetxe zaharrenak, Santa Anak, 104 urteko bizitzaren ondok ikasturte honetan atek itxi behar izan ditu. Lizardi institutua, berriz, etorkizunari aurre egiteko

asmoz, egoitza berriaren lanak hastekoa da Aritzataldean.

Geroari begira ere, esperantzaz eta ilusioz lanean aurten hasi diren hainbat talde ere aurreztu da herriari. Horien artean, Zarautzko irratia sortzeko helburuaz agertutako Txaparro irratia, Sorginak Emakume Asanblada edota Vladimir literatura hilabetekaria aipa genitzake.

MONDRA

KAFETEGIA

OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Plater
konbinatuak

Zure aurrean,
eramateko unean
egindako ogia


Mixelena Kalea, 27 • Tf. 83 45 61
ZARAUTZ

Mixelena Kalea, 25 • Tf. 13 45 29
ZARAUTZ

ARRANO KABIA ELKARTEA ZARAUTZ



KULTUR EKINTZAK,
DANTZA,
PANDERO ETA
TXALAPARTA
IKASTAROAK,
MONTETXIO KOROA
ETA ORKESTRA,
TXISTU TALDEA
GIRO JATORRA



- Lanerako arropa urdiña
- Eskola-mantalak
- Mihisateria
- Baserritar jantziak

K. Nagusia, 21 - Tel.: 13 24 02 - ZARAUTZ